## SALAKETEN KANAL IREKIA

Iruzur-kasu bat detektatzeko barne-prozedurez gain, ezinbestekoa da tresna bat izatea edozein pertsonak, korporazioaren barrukoak zein kanpokoak, edozein susmo salatzeko aukera izan dezan, batzordeak ikerketa bat ireki ahal izateko. Azken batean, tresna digitala da, ustez irregularrak diren jarduerak eta jokabideak isilpean eta inprimaki erraz batekin komunikatzeko aukera ematen duena.

Bide hori UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEAren webgunean egongo da eskuragarri, kanal.etikoa@urolakosta.eus, eta Batzordearen ardura izango da izapidetzen dituen salaketen jarraipen egokia egitea. Edozein jakinarazpen erregistratu egingo da, eta dagokion ikerketa egin baino lehen, aldez aurretik jakinarazpenaren egiaztapena egin beharko da, jakinarazpenari eman beharreko tratamendua zehazteko.

Jasotako informazioa argi eta garbi funtsik gabea denean, ez da ikerketarik egingo, ez eta deskribapen orokorregia eta zehaztugabea denean edo jasotako informazioa zentzuz egiaztatzea eta jakinarazitako gertaerei eman beharreko tratamendua gutxieneko moduan zehaztea eragozten duen froga-elementurik ez dagoenean ere.

Konfidentzialtasun osoa gordeko da salatzailearen nortasunari dagokionez, eta ez da jakinaraziko. Beraz, egiten diren komunikazio, egiaztapen-jarduketa edo dokumentazio-eskaera guztietan, ez dira jasoko informazioa bidali duen pertsonaren nortasunari buruzko daturik, ezta erabat edo partzialki identifikatzera eraman dezakeen beste edozein ere.

Era berean, Iruzurraren aurkako Komiteak jarduketak beste organo batzuei helarazi behar badizkie, organo horiek dagozkien prozedurak izapidetu ditzaten, aurreko

## CANAL ABIERTO DE DENUNCIAS

Además de los procedimientos internos para detectar un caso de fraude, es indispensable contar con una herramienta que permita a cualquier persona, tanto internamente dentro de la corporación, como externamente, denunciar cualquier sospecha, que permita al comité abrir una investigación. En definitiva, es una herramienta digital, que permite comunicar, de manera confidencial y con un sencillo formulario, las actividades y conductas supuestamente irregulares.

Este canal estará disponible en la web de LA MANCOMUNIDAD DE UROLA KOSTA, kanal.etikoa@urolakosta.eus y será responsabilidad del Comité hacer el seguimiento oportuno de las denuncias que se tramiten por el mismo. Cualquier comunicación será registrada, iniciándose una verificación previa a la investigación oportuna, a efectos de determinar el tratamiento que deba darse a la misma.

No habrá una investigación, cuando la información recibida estuviera manifiestamente infundada, la descripción excesivamente genérica e inconcreta o por falta de elementos de prueba suministrados que impidan realizar una verificación razonable de la información recibida y una determinación mínima del tratamiento que deba darse a los hechos comunicados.

Se guardará total confidencialidad respecto a la identidad del denunciante, de forma que la misma no será revelada. Por tanto, en todas las comunicaciones, actuaciones de verificación o solicitudes de documentación que se lleven a cabo, se omitirán los datos relativos a la identidad de la persona que hubiera remitido la información, así como cualesquiera otros que pudieran conducir total o parcialmente a su identificación

Asimismo, cuando el Comité Antifraude tuviera que trasladar las actuaciones a otros órganos para que por estos se tramiten los procedimientos que

lerrokadan xedatutakoa aplikatuko zaie beste organo horietara bidaltzen diren dokumentazioei, jurisdikzio-organoen edo Fiskaltzaren kasuan izan ezik, eta prozedura judiziala arautzen duen araudiak besterik eskatzen ez badu. Azken kasu horretan, informatzailearen nortasuna ezinbesteko pertsona edo organoei soilik jakinaraziko zaie.

correspondan, será de aplicación lo dispuesto en el párrafo anterior a la documentación que se remita a esos otros órganos, salvo cuando se trate de órganos jurisdiccionales o del Ministerio Fiscal y la normativa reguladora del procedimiento judicial exija otra cosa. En este último caso, la identidad de la persona informante se comunicará únicamente a las personas u órganos a los que resulte imprescindible.

Zarautzen, 2023ko azaroaren 29an

Ziurtagiri elektronikoarekin sinatuta / Firmado con certificado digital